

Poesia

IBAN GARRO ALZURI

EURI BEROAK

BLAS DE OTÉRO - ÁNGELA FIGUERA

NAZIOARTEKO XVII. POESIA LEHIAKETA



erein

EURI BEROAK

Poesia, 52

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.

Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra
(Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Bilboko Udalak eta Blas de Otero Fundazioak antolatzen duten Blas de Otero - Ángela Figuera
XVII. Poesia Lehiaketa irabazi du liburu honek.

1. argitalpena: 2025eko urrian.

Azalaren diseinua:

Ivan Landa

Maketazioa:

A. Beltza

© Iban Garro Alzuri

© EREIN. Donostia 2025

ISBN: 978-84-1093-073-5

L.G.: D 960-2025

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Ulzama

Altzutzate kalea, 51

31620 Huarte, Nafarroa

T 948 332 808

contacto@ulzama.com

www.ulzama.com



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera
ekologikoa da eta modu jasangarrian
kudeatutako basoetatik dator.

Iban Garro Alzuri

EURI BEROAK

BLAS DE OTERO - ÁNGELA FIGUERA
XVII. POESIA LEHIAKETA

*Amari eta attari, esker onez
Ainhize, Xabi eta Amaia, hitz bakoitzean
Exkernekoborda odolean*

2024ko udaberrian,

deus ez denez hain eta halaxe, hementxe, bide er-
tzeko ostatuan kafea hartzen, leihotik kanpora
begira. Euria ari du.

I

Euria ari du eta goizari ogi egin berriaren usaina dario. Barka atrebentzia, zuri ari natzaizu, aitzinetik pasatu zaren horri, bazoaz. Mugikorrera daramazu bista, erosketa poltsa sorbaldan, xira xuria, edo eskuak giblean gurutzatuta, hankak arin, ilea zapi zuriak estalia. Bazoaz eta ez didazu begiratzen. Ekintzak, hitzak, guziak zure aldean gertatzen dira. Zorionekoa zu. Gertatzen direnen usainak ailegatzten dira niregana, bertzerik ez. Ogiarena goxoa da, jarrai ezazu. Norberaren aukerak distantzia ttikietan erabakitzen direlako zauzkat metro guttira. Segi, zurea egin behar duzu zureez, segi, baina jakin giblean uztea ez dela hain erraza, jarraitu eginen dizula, beti.

Ulertuko nindukezu isiltasunari adituko bazenio zeri egiten diozun ihesi.

T tipi-ttapa, ttipi-ttapa

ABISATU GABE zatoz eta
harrapatu nahi zaitut airean,
ekarri zuriaren gainera,
kontu, deskantsatu.

Harrapatu ezean airea
eskapatuko baitzait biriketatik.
Jakin betirako galtzea
erran nahi duela horrek.
Ez dut hori nahi.
Ez oraindik, ez inoiz.

Nora goaz ailegatzen ez garenok?
Bat baino gehiago gara bidean,
hori eta gehiago zor dizut, zatozte hitzok.

Trukean, tori gorputz atal bakoitzarekin
desberdin sentitzeko modu hau.
Edozein izatera jaio izanak
bihurtzen gaitu ez-edozein.

Terapia zait atzera idaztea,
zaila, irria begietaraino heltzea.
Aurpegitxoak jarriko dizkizut:
urdin luzeak, malkartsuak, agian musikalak,

eta erran faborez zein,
noiz iristen zaizun irria begietara,
noiz harrapatu zaitudan airean.

ETXEKO SOINUEZ oroitzen naizenean
datoz afaldu ondorengo
amaren hitzak
lanpara xuriaren argian,
kanpoan euria
eta tximinia suaren
beroaz dilatatzen.

Etxeko soinuez oroitu eta
amatxiren arnasa
ilunabarrean,
ahotik hartu, ahotik bota,
barazkiak puskatzen.

Edo esnea botilatik katilura,
ura askan, plantxa,
gabon pasa eta egun ona izan.

Etxeko soinuak dira
soinu izan aitzin
etxeakoak direlako jada,

edozein urrunetik
bueltatzen gaituzten horiek.

UHINAK BELARRIRA bidean
topatutakoa liteke gakoa:
altzairuak, moketa,
atatxiren argazki aspaldikoa,
baldintzarik eza eta beroa.

Isiltasunak baitira soinu izan aitzin,
bizitzara bueltatzen gaituzten horiek.

EZ NAIZ nire gorputzean bizi.
Arnasa badut baina
bertzeen oinetan nabil.

Ez dira ez nire igandeak
ez nire minak,
arropek ez didate berorik
eusten.

Behatza luzatzen dut
azala ukitu nahian.
Norberera ezin iritsia
arratsalde luze xamarra da.

Neke nekaezina,
akabatu gabe hasten baita
behin eta berriz.

Zer gelditzen zait
igaroak hingatutako geroa ez bada?

Zuk erran gabe ere badakit
leihotik begira
argazki bat naizela kristalean.

Ez naiz nire gorputzean bizi
eta okerrena jakitea da.

Gauero igurzten ditut eskuak
askara bidali nahi dudan zikina
delako esperantza.